


# Homenaje a l@s esclav@s del franquismo / Omenaldia frankismoaren esklaboei

*En defensa de los derechos de las personas LGTBIQ+*

*LGTBIQ+ pertsonen eskubideen alde*

**Puerto de Igal / Vidángoz (Navarra), 17 de junio de 2023**

**Igari / Bidankoze mendatea (Nafarroa), 2023, ekainak 17**



## Laguntzaileak / Colaboran:

Autobús de la Memoria / Oroimenaren Autobusa  
Instituto Gerónimo de Uztariz Institutua  
Quesos Ekia  
Quesos Larra  
Bodegas Aristu  
Egarri Banaketa

Instituto Navarro de la Memoria / Memoriaren Nafarroako Institutua (Gobierno de Navarra – Nafarroako Gobernu)

[www.memoriarenbideak.eus](http://www.memoriarenbideak.eus)

[@memoriarenbide1](https://www.instagram.com/memoriarenbide1)

## **Omenaldia frankismoaren esklaboei**

### **2023, ekainak 17ko ekitaldiko egitaraua eta parte-hartzaileak**

Aurten berriro ere Igari – Bidankozeko mendatean frankismoaren esklaboei eta bere senitartekoei omenaldia egiteko elkartuko gara, eta azken urteotan bezala, protagonismo handia izanen dute gatibu ohien senitartekoek, musikari gazteek eta gaur eguneko ekimen sozialek.

Izan ere, Memoriaren Bideak taldean oso argi dugu memoria historikoa gaur eguneko arazoei aurre egiteko tresna izan behar dela, gaurko giza eskubideen defentsarako baliagarria. Hori dela eta, aurten nahiko ezezaguna den gai bat azpimarratu nahi izan dugu, LGTBIQ+ pertsonen aurkako errepresioarena, alegia, haiek ere pairatu baitzituzten bortxazko lanak frankismo garaian, haientzat espreski diseinaturiko esparru batean, Tefiako Espetxe Nekazal Kolonia, alegia, Fuerteventurako irlan.

Ekitaldia eguerdiko 12:30etan hasiko da, Igari eta Bidankoze herriak lotzen dituen errepidearen mendatean, 1939 eta 1941 bitartean 2400 antifaxistek ireki zuten errepidearen ondoan, alegia.

- Ohi bezala, **Juan Kruz Lakasta** kazetariak zuzenduko du ekitaldia.
- **Prisioneroen senitartekoak** bertan egonen dira, Bizkaia, Bartzelona eta Zuberoatik helduta, eta parte hartzeko aukera izanen dute. Ziurtatuta dago ekitaldian honako hauek hitz egingo dutela:
  - **María Guilera**. Bere aitak, **José Guilera Escofetek** (Avinyonet del Penedés, Barcelona, 1914) errepide honetan egin zuen lan 127 Langile Batailoian, eta Mariak Nafarroako Oroimen Historikoaren Dokumentazio Funtsan utzi zituen iaz aita eta familiaren arteko 46 gutun, gatibualdi garaian idatzitakoak.
  - **Antton Gandarias**. Bere aitak ere, **Teodoro Gandarias Aguirrek** (Gernika, Bizkaia, 1916) errepide honetan egin zuen lan, 38. Langile Soldaduen Diziplina Batailoian. Beste senitarteko bat, Angel Lekuona, nazien kontzentrazio eremu batean eraila izan zen, Txekiar errepublikan.
  - **Txomin Uriarteren familiak** ere parte hartuko du. Txomin Uriarte Intxaustik (Bakio, Bizkaia, 1916) eta 38. LSDBko bere kide gatibuek Carlos Gardelen tango baten moldaketa egin zuten, Erronkariko lan egoera egokitua, eta larunbat honetan ere familian, belaundaldiz belaunaldi, mantendutako tangoa abestuko dute.
- **LGTBIQ+ pertsonen** egoera salatzeko **Kattalingorri elkarteko Alizia Izal Elorzek** parte hartuko du. **Las Tipex musika taldeak** ere gai honekin loturiko abestiak joko ditu.
- Pirinioez bestaldetik **Mauleko udaletxeko ordezkari** etorriko da, eta honen izenean **Louis Labadot auzapezak** hitz egingo du.

- Bestalde, **Aitor Garjón**ek, **Ceaquako** partaideak (**Coordinadora Estatal de Apoyo a la Querrela Argentina contra los crímenes del franquismo**) iragarriko du udazkenean Nafarroan aurkeztuko dela bortxazko lanen inguruko estatu espainiarreko lehen kereila, errepide honetan lanean egon zen **Andres Vitores Estradaren** (Portugalete, Bizkaia, BDST 38) semeak jarrita, eta berarekin batera bortxazko langileen beste senitarteko batzuk.
- Orain arte aipaturiko **Matías del Ascensor** eta **Las Tipex** taldez gain, beste partehartze musikalak ere egonen dira ekitaldian:
  - **Otsagiko Dantzariak** eta **Ilunberriko Gaiteroak** omenaldi ireki eta itxi egingo dute
  - **Nor Taldeak**, hiru neskek osaturik, bi abesti joko ditu.
  - Ohi bezala, ohorezko aureskua **Gorka Mediavilla** dantzariaren eskutik jasoko dute omenduek, **txistu eta perkusioarekin Xanti Begiristain, Kepa Vales eta Andoni Uzkedak lagunduta**.
- **Katakarak liburudendak** bere postua jarriko du, eta aurten sail berezi bat egonen da frankismo garaian LGTBIQ+ pertsonen jasandako errepresioari buruz. Horretaz aparte, omenaldi honetan behin baino gehiagotan parte hartu duen bi lagunen liburu berriak ere eskuragarri egonen dira, **Asun Larretak** idatzitakoa, *Juan Larreta Larrea, El compromiso personal y familiar de un maestro represaliado (1881-1936-2023)*, (Pamiela argitaletxea) eta **Juan Carlos García Funesek** idatzitakoa (*Desafectos, Batallones de trabajo forzado en el franquismo*; Comares argitaletxea).
- Omenaldiaren ondoren, **bazkari autogestionatua** egingo dugu Bidakonzeko frontoian. Elkarreak ogi-mamiak, txurrasko eta edaria banatuko ditu. Bazkalostea **Bixen Aldaz Goñi DJak** alaitu du bere musikarekin, eta omenaldiaren soinua ere bere ardura izanen da.
- Omenaldi honetan ohiko da hainbat ilustratzaile eta diseinatzaileek eskuzabaltasunez parte hartzea, eta aurten **Koro Lizarreta** ilustratzaileak eman dio jarraipena tradizio honi, omenaldiaren kartela diseinatu.

**Omenaldia Bi Ahizpak** ekoizleak grabatuko eta editatuko du, beraz, laburpen bat ikusgai egonen da gure webgunean eta Youtubeko kanalean (<https://www.youtube.com/@memoriarenbideak6014/videos>) .

Gainera, uda honetan Memoriaren Bideak, **Otsagiko Naturaren Interpretazio Zentruarekin** eta **Nafarroako Memoriaren Institutuarekin** elkarlanean, bisita gidatuak egingo ditu Igarin berreraiki zen barrakoian, non errepidea irekitzen aritu ziren gatibuek lo egiten zuten. Bisita **Ainara Rodriguez historialariaren laguntzarekin** egingen dugu, eta egun hauetan izanen da: Abuztuak 1 (gazteleraz), Abuztuak 2 (euskaraz) eta Abuztuak 22 (gazteleraz).



**Homenaje a l@s esclav@s del franquismo**  
**Programa y participantes el 17 de junio de 2023**

Volveremos este año al alto de Igal – Vidángoz para homenajear a los y las esclavas del franquismo, así como a sus familiares, que serán quien tengan un protagonismo especial, además de las actuaciones musicales y representantes de colectivos de diverso tipo.

El colectivo Memoriaren Bideak siempre ha querido vincular la memoria histórica con problemáticas actuales, de manera que siga siendo una herramienta para la defensa de los derechos humanos. Con esta intención, este año hemos querido subrayar una realidad no muy conocida, la represión sufrida por las personas LGTBIQ+, quienes también fueron castigadas con trabajos forzados bajo el franquismo en un espacio especialmente diseñado para ellas, la Colonia Agrícola Penitenciaria de Tefía, en la isla de Fuerteventura.

El acto se iniciará a las 12:30, en el puerto de esta carretera que une Igal y Vidángoz, en la que trabajaron más de 2.400 prisioneros antifascistas entre 1939 y 1941.

- Como en otras ocasiones, el acto será presentado por el periodista **Juan Kruz Lakasta**.
- También acudirán **familiares** de prisioneros desde **Bizkaia, Barcelona y Zuberoa**, que tendrán la oportunidad de tomar la palabra. Está ya asegurado que hablarán:
  - **María Guilera**. Su padre, **José Guilera Escofet** (Avinyonet del Penedés, Barcelona, 1914), trabajó en esta carretera en el Batallón de Trabajadores, y María depositó el pasado año en el Fondo Documental de la Memoria Histórica en Navarra (UPNA) 46 cartas que intercambió su padre con su familia durante su cautiverio.
  - **Antton Gandarias**. Su padre, **Teodoro Gandarias Aguirre**, (Gernika, Bizkaia, 1916) también trabajó en esta carretera, en el Batallón Disciplinario de Soldados Trabajadores nº 38. Otro familiar suyo, Ángel Lekuona, fue asesinado en un campo de concentración nazi.
  - **La familia de Txomin Uriarte** también participará. Txomin Uriarte Intxausti (Bakio, Bizkaia, 1916) y sus compañeros del BDST 38 amoldaron un tango de Carlos Gardel a su realidad de cautiverio en Roncal. Su familia ha mantenido la canción de generación en generación y este sábado la cantarán también en el homenaje.
- **Alizia Elorz Izal**, de la **asociación Kattalingorri**, denunciará la represión sufrida por las **personas LGTBIQ+**, y el **grupo musical Las Tipex** también ha preparado una actuación vinculada con esta temática.
- También habrá solidaridad e intervenciones desde el otro lado del Pirineo, con una representación del **ayuntamiento de Maule (Zuberoa)**, en nombre del cual intervendrá su **alcalde, Louis Labadot**.

- Por su parte, **Aitor Garjón**, miembro de **CEAQUA (Coordinadora Estatal de Apoyo a la Querrela Argentina contra los crímenes del franquismo)** anunciará que en otoño se presentará en Navarra la primera querrela del estado español con motivo del trabajo forzado. La querrela la pondrá el hijo de **Andrés Vitores Estrada** (Portugaleta, Bizkaia, 1916) prisionero del BDST 38 que trabajó en esta carretera, junto con otros familiares de trabajadores forzados.
- Además de **Las Tipex** y **Matías del Ascensor**, habrá otras actuaciones musicales:
  - El acto será abierto y cerrado por el **grupo de Dantzaris de Otsagabia** y los **Gaiteros de Lumbier**.
  - El grupo **Nor Taldea**, compuesto por tres mujeres, interpretará dos canciones.
  - Como de costumbre, el aurreku de honor lo realizará el dantzari **Gorka Mediavilla**, acompañado al **txistu** y la **percusión** por **Xanti Begiristain, Kepa Vales y Andoni Uzbeda**.
- La **librería Katakarak** pondrá un puesto en el que tendrán un hueco especial libros relacionados con la represión sufrida por las personas LGTBIQ+. Además, también estarán a la venta dos libros recientemente publicados y escritos por dos personas que han participado en este homenaje: el escrito por **Asun Larreta**, *Juan Larreta Larrea, El compromiso personal y familiar de un maestro represaliado (1881-1936-2023)*, (Editorial Pamiela) y el de **Juan Carlos García Funes**, *Desafectos, Batallones de trabajo forzado en el franquismo* (Editorial Comares).
- Tras el homenaje, continuaremos el encuentro en el frontón de Vidángoz, con una **comida autogestionada** en la que la organización proporcionará migas del Roncal y txurrasko a la brasa y con una **sobremesa amenizada musicalmente** por el **DJ Bixen Aldaz Goñi**, que también se encargará de la sonorización del homenaje.
- Este año ha sido **Koro Lizarreta** la ilustradora que ha continuado la tradición de generosa colaboración de artistas y diseñador@s en la realización del cartel del homenaje.

De cara a este verano, os recordamos que una vez más próximamente tendréis disponible ver en nuestra web y canal de You Tube (<https://www.youtube.com/@memoriarenbideak6014/videos>) un resumen del homenaje, grabado y editado por la **productora Bi Ahizpa**.

Además, durante el verano Memoriaren Bideak, en colaboración con el Centro de Interpretación de la Naturaleza de Otsagabaia y el Instituto Navarro de la Memoria, realizará tres visitas guiadas al barracón de Igal, reconstrucción de uno de los barracones en los que dormían los prisioneros que trabajaron en la construcción de esta carretera. Las visitas contarán con la participación de la **historiadora Ainara Rodríguez** y se realizarán en agosto los días 1 (en castellano), 2 (en euskera), y 22 (en castellano).

